

Foru Aldundiak 20.000 euro bideratuko ditu Moriako gunean dauden errefuxiatuentzako elikagaiak erosteko

Laguntza horri esker, Zaporeak proiektu humanitarioak egunero 4.000 janari anoa eskaini ahal izango ditu, kanpalekua erre ondoren bizi den larrialdi humanitarioan

Gasteiz, 2020ko irailaren 16a. Arabako Foru Aldundiak 20.000 euro bideratuko ditu Zaporeak erakundea garatzen ari den proiektura, Lesbosko Moriako errefuxiatu gunea erretzean sortu den egoera humanitario dramatiko delata eta; izan ere, milaka pertsona urik eta janaririk gabe geratu dira, eta kanpoan lo egin behar izan dute.

Erabaki horrekin, Foru Aldundiak erantzun egin dio Zaporeak elkarteak egindako eskaerari, suteak eragindako larrialdi humanitarioaren eta errefuxiatuen sakabanaketaren aurrean. Laguntza ekonomiko horrek elikagai freskoak erosten lagunduko du, hala nola fruta, barazkiak eta proteina eduki handiko elikagaiak.

Lesboseko egoera ikusita, Foru Aldundiak bat egin du Eusko Jaurlaritzak egindako eskaerarekin: Europako Batzordeak eta bere estatuek errefuxiatuen krisi humanitario honi erantzun azkar eta premiazkoa emateko konpromisoa har dezatela eta aintzat har dezatela Eusko Jaurlaritzaren 'Share' proposamena.

Zaporeak elkarte solidarioa da, irabazi asmorik gabekoa, auzoko elkarte gastronomiko batean sortutako ekimena. 2016tik Greziako errefuxiatuen kolektiboa elikatzea du helburu. Helburu nagusia da Lesbosen dauden errefuxiatuei egunero eta duintasunez janaria prestatzea; izan ere, Lesbos da kolektibo horren sarrera nagusia Grezian. Gizarte erakundeak kanpalekuen egungo egoerari buruzko sensibilizazio lanak ere egiten ditu, Euskadiko eta Nafarroako boluntariora sare zabalaren bidez.

Kanpalekua erretzean sortutako egoera gorabehera eta COVID-19k eragindako mehatxu globala gorabehera, Zaporeak taldeak lanean jarraitzen du



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava

www.araba.eus

Prentsa Oharra Nota de Prensa

helburu humanitario honetan laguntzeko, eta asmoa da egoera horrek kaltetutako milaka pertsoneri emandako elikagaien anoak bikoiztea.

Zaporeak elkarrekin gutxienez 4.000 anoa eman nahi dizkie egunean, fruta, barazki eta urrez lagunduta, suteak kaltetutako errefuxiatuei. Kopuru horrek bikoiztu egiten du sukaldearen egungo gaitasuna.

Orain arte, Zaporeak erakundearen lan eremu nagusia Moriako gunean ospitaleratutako gaixotasun kronikoak zituzten pertsonak eta emakume haurdunak ziren. ACNURen datuen arabera, joan den abuztuan 14.036 pertsona bizi ziren 2.500 pertsona hartzeko egokitutako lekuan, eta datu kontserbadoreen arabera, gunean bakarrik zeuden mila adingabe baino gehiago.

Gizaki orok du elikadura egokia izateko eskubidea eta goserik ez izateko oinarritzko eskubidea, giza eskubideei buruzko nazioarteko arauen arabera. Eskubide hori indartu egin da, gainera, Garapen Jasangarriaren Agenda (2030 Agenda) onestean. Agenda horren 2. xedeak helburu esplizitu bat jasotzen du, pertsona guztiek, bereziki egoera ahulean daudenek, elikadura osasungarria, elikagarria eta nahikoa izatea.